

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Gobernuak sektoreko enpresak erakartzeko proiektu bat sustatuko du Tuterako Nekazaritza Elikagaien Hirian

*ORIZONTen bidez, enpresak bertan finkatzea bizkortuko da merkatuan urtebetean sartzeko aukera izan dezaten*

Viernes, 06 de febrero de 2015

Nafarroako Gobernuak, SODENA enpresa publikoaren bidez, ORIZONT enpresak erakartzeko proiektua sustatuko du. [Tuterako Nekazaritza Elikagaien Hirian](#) (CAT) jarriko da, sektoreko enpresak bertan finkatzeko prozesua bizkortzeko asmoz eta merkatuan urtebeteko epean sar daitezten; beharrezko azpiegiturak eta ezagutzak jarriko dira haien esku.



Ezkerretik eskuinera: Luis Casado, Lourdes Goicoechea, José Javier Esparza eta Carlos Fernández, CATen enpresak bizkortzeko egindako aurkezpenean.

Foru Gobernuaren babesarekin batera, proiektuak beste erakunde batzuen babesa du, adibidez: teknologia-zentroak, unibertsitateak eta nekazaritza-elikagaien sektoreko Estatuko enpresak. Ekimena 2015eko urte honetan jarriko da martxan, behar bezala.

CATen bertan gaur goizean egindako aurkezpen-ekitaldian, lehen lehendakariorde eta Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu kontseilari Lourdes Goicoecheak parte hartu du; Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazio kontseilari eta CATen lehendakari José Javier Esparzak eta SODENA-CEIN sozietate publikoko gerente Carlos Fernándezek. Bertan izan da Tuterako alkate Luis Casado ere.

## **ORIZONT abian jartzeko prozesua**

Goicoechea lehendakariordeak iragarri duenez, datozen asteotan ORIZONTen aholku-batzordea osatuko da. Batzorde hori Gobernu, SODENA, teknologia-zentro, unibertsitate eta nekazaritza-elikagaien enpresa-sektoreko ordezkariak

osatuko dute. Alde horretatik, hain zuzen ere, Goicoecheak azpimarratu du, "Nafarroako aberastasunaren % 6,6 nekazaritza-elikagaien sektoretik datorrela zuzenean; 25.000 lagunek egiten dute lan sektore horretan".

Lehen urrats honen ondoren, urteko bigarren seihilekoan proiektuak aurkezteko epea zabalduko da; nolabaiteko garapen-maila duten ekimenetarako da, berritzaileak direnak eta hazteko ahal handikoak; Nafarroatik, Espainiako beste leku batzuetatik edo atzeritik etorritakoak; eta Foru Komunitatean egonkortzeko bokazioa dutenak bertako enpresa-sarea finkatzeko asmoz.

Hautagaitzak jasotzen direnean, uda hasieran aholku-batzordeak parte-hartzaileen azken hautaketa bat egingo du, eta urteko deialdi bakoitzeko zortzi proiektu izango dira. ORIZONTen parte hartzeak zenbait onura emango dizkie:

- SODENaren ekarpen ekonomikoa izatea; 110.000 euro jarriko ditu proiektu bakoitzean (30.000 euro kapital modura eta 80.000 aurreratutako mailegu modura).

- CEINek prestatutako bizkortze-proiektuaren barnean sartzea; irailean hasiko da, eta sei hilabetez iraungo du.

- Nekazaritza-elikagaien arloan espezializatutako enpresa laguntzaile eta aholkularien multzo batean sartzea. Sektoreko 50 enpresak baino gehiagok osatzen dute hura, eta ekintzaileei laguntza emango die aholkularitza teknikoa eta merkatuaren ezagutza eskainiz.

- CATen kokatuta izatea, eskaintzen dituen zerbitzu espezializatuak kontuan hartuz.

ORIZONTen aurrekontuaren barnean, Nafarroako Gobernuak 1,4 milioi euro jarriko du urtero. Dirukopuru horrekin, zortzi proiektu horietako bakoitzak behar dituen 110.000 euroak ordaintzeko erabiliko dira. Gainerakoa, berriz, programak funtzionatzeko gastuetarako erabiliko da.

### **CATen jardueraren areagotzea**

CATen lehendakaria izanik, Esparza kontseilariak nabeen okupazio-maila azpimarratu du: 2013ko urtarrilean, % 23koa zen, eta 2014ko abenduaren 31n, berriz, % 40koa.

Negozio-zentroan bulegoek okupatutako espazioan izandako igoera ere nabarmendu du: 2012an, % 9koa zen, eta % 54koa gaur egun. Zentro horretan 128 enpresa daude (2012aren hasieran baino 13 gehiago), hamar enpresa partzeletan (bi urte lehenago zeuden halako bi), eta beste zazpi, nabeetan (lau zeuden 2012. urtean).

CATen hartutako ekimenetan, azken urtetotan UVESaren inkubagailu berria ageri da (eraikitzen ari dira) eta, hari esker, hamabost lanpostu sortuko dira zuzenean eta 50 bat zeharka; Jamones Volatín lantegi berriaren eraikuntza; 2013an, ozpinetako baderillatxoak egiten dituen Kimbo Snacks jarri zen, eta baita SANYGRAn ere, CEIN haztegiatan hasitako enpresa.

Gainera, Bardeetako gasolina-zerbitzuguneak bere gasolindegia eta jatetxeko zerbitzuak zabaldu ditu, duela hiru urtetik martxan dagoena, autoak garbitzeko makinarekin eta tailerrarekin. Bi nabe hartzetik hirura pasa da, 20.500 m<sup>2</sup>-ko partzela batean.



Casado, Esparza, Goicoechea lehendakariordea eta Fernández, CATeko enpresa-haztegiaren alboan.

Azkenik, Esparza kontseilariak iragarri duenez, OLEFAT enpresa finkatuko da laster CATen, eta hamabost lanpostu sortuko ditu. Erabilitako olio-en tratamenduan aritzen den enpresa da.